

SOLDATA- ARRAKALA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2021EKO MARTXOA

EGILEA: ESTIBALIZ GARCÍA
CANO



Ereikunde autonomiadiuna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

REPARTOAN, JUSTIZIA
ETA BAZKATE POLITIKARIKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Titulua: SOLDATA-ARRAKALA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Editorea: Emakunde-Emakumearen Euskal Institutoa

Egilea: Estibaliz García Cano

Data: 2021eko martxoa

AURKIBIDEA

HITZAURREA	1
GENEROKO SOLDATA-ARRAKALAREN DEFINIZIOA ETA SORTZEN DUTEN FAKTOREAK.....	2
SOLDATA-ARRAKALAREN ANALISIA.....	5
1.1. Soldata-arrakala, urteko eta orduko.....	5
1.2. Soldata-arrakala, jarduera ekonomikoaren sektorearen arabera	5
1.3. Soldata-arrakala, okupazioaren arabera.....	7
1.4. Soldata arrakala, kontratu motaren arabera	9
1.5. Soldata-arrakala, adin-tartearen arabera	11
1.6. Soldata-arrakala, nazionalitatearen arabera	11
1.7. Soldata-arrakala, autonomía-erkidegoen arabera	12
1.8. Soldata-arrakala, Europar Batasunean	14
ONDORIOAK.....	17



HITZAURREA

Nahiz eta iraganeko gaia dela pentsatu, genero-desparekotasuna dagoeneko desagertu dela, ez da egia. Gaur egun eremu askotan agerikoa da desparekotasuna egon badagoela, eta, tamalez, emakumeek euren egunerokoa hura pairatzen jarraitzen dutela.

Desparekotasun horien eragina gehien pairatzen duten eremuetako bat lan-arloa da, eta, horren barruan, emakumeek lana egiteagatik jasotzen duten soldata.

Soldata-desberdintasuna kuantifikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko soldata-arrakalari buruzko datuak aurkeztuko ditugu jarraian. Datuok 2018ko Soldata Egituraren Lau Urteko Inkestatik (SEI) lortu dira (Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) argitaratu zuen 2020ko irailaren 24an). Horixe da sexuen arabera banakatutako soldatekin argitaratu den azken inkesta.

Aurkeztutako datuak zuzen aztertzeko eta ulertzeko garrantzitsua da honako hau adieraztea:

- Zerbitzuak kotizazio-zentroetan ematen dituzten besteren konturako langile guztiez dago osatuta SEIren populazio-esparrua, zentroon tamaina edozein dela ere eta erreferentzia-urteko urri osoan zehar Gizarte Segurantzaz aldatu egon badira. Kanpoan uzten dira presidenteak, administrazio-kontseiluetako kideak eta, oro har, ordainsaritzat, batik bat, komisiok edo mozkinak jasotzen dituztenak (eta ez soldata-erako ordainsariak). Estatu-mailako lurralde osoa hartzen du, eta datuak autonomia-erkidegoen arabera banakatuta ematen ditu.

- Sektore-estaldurari dagokionez, hiru sektore handietako (industriako, eraikuntzako eta zerbitzuetako) jarduera ekonomikoa duten kotizazio-zentroak ikertu dira. Gaur egun, inkestatik kanpo geratzen dira nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-jarduerak; zati batean, administrazio publikoa, Defentsa eta nahitaezko Gizarte Segurantzak (Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko enplegatu publikoak barne hartuta); etxeko langileak; eta lurraldez kanpoko organismoak.
- Soldata-kontzeptuak. Soldata-kontzeptu guztien balioak gordinak dira, hau da, PFEZaren konturatuko atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzako kontribuzioak egin baino lehenagokoak.
- Analisisiko datuak urteko batez besteko irabazian eta lanordu arrunteko irabazian oinarrituta aurkezten dira.
- Adierazle hauek hartu dira kontuan soldata-arrakala aztertzeko:
 - jarduera-sektorea
 - okupazioa
 - kontratu mota
 - adina
 - nazionalitatea
- Adinaren eta nazionalitatearen kasuan, urteko batez besteko irabaziei buruzko datuak bakarrik biltzen ditu SEIk.

GENEROKO SOLDATA-ARRAKALAREN DEFINIZIOA ETA SORTZEN DUTEN FAKTOREAK



Datu kuantitaboei heldu aurretik, ezinbestekoa da zenbait gai argitzea.

Hala, soldata-desberdintasuna terminoak, soldata-arrakala edo soldata-desparekotasuna ere deitzen denak, erreferentzia egiten dio emakumeen eta gizonezkoen batez besteko soldaten artean dagoen aldeari, oinarritzko soldata gisa eta soldataren osagarri eta aparteko modura benetan jasotakoa kontuan hartuz beti.

Soldata-diskriminazioa, berriz, *a posteriori* diskriminazioa da, egile batzuen esanetan. Kontzeptu hori diskriminazio hutsean oinarritzen den soldata-desberdintasunaren zatiarekin dago lotuta; hots, langilearen sexuan baino oinarritzen ez den soldata-arrakalaren zatia da.

Horrenbestez, soldata-diskriminazioa lanpostuan gertatzen da, eta ez da emakumeek lanaren arloan pairatzen duten bestelako diskriminazio-ekintzekin nahastu behar (enplegua lortzeko diskriminazioarekin, adibidez; autore batzuen iritzian, *a priori* diskriminazioa litzateke hori). Emakumeak lan-merkatuan gizonen baldintza berdinekin sartzeko faktoreek eragiten dute *a priori* diskriminazioa; soldata-diskriminazioa, berriz, lanpostua lortu ostean baino ez da agertzen.

Soldata-arrakalak, oro har, lan-merkatuan dauden diskriminazioa eta desparekotasunak islatzen ditu. Eta diskriminazio eta desparekotasun horiek, praktikan, emakumeei eragiten diete nagusiki. Besteak beste, honako faktore hauekin du lotura:

- Emakumeek egindako lanari balio sozial eta ekonomiko txikiagoa ematen zaio. Kualifikazio apaleko lanbide-kategorietan gehiago gertatzen da hori. Hau da, gizonak eta emakumeak ez dute balio bereko lanaren truke lansari berdina jasotzen. Horrez gain, balioespen-irizpideak ez dira eguneratzen, ez eta soldata-osagarriak ere.

- Enpleguan gizonak eta emakumeak dituzten posizio desberdinak genero-harremanek markatzen dituzte (lan-arloko segregazioa): emakumeak geroago sartzen dira laneko hainbat sektore eta mailatan, emakumeak sektore eta lanbide batzuetan duten presentzia, gutxiagotan betetzen dituzte erantzukizuneko postuak, lan-baldintza okerragoak dauzkate lana eta familia uztartzeko beharragatik, eta abar.


- Emakumeak lan-munduan masiboki sartu zirenean, familiako ardurak ez ziren ekitatiboki banatu emakumeen eta gizonen artean, gehienbat emakumeen esku gelditu baitziren. Ondorioz, emakumeak lan-munduan sartu baziren ere, behartuta egon ziren soldata-igoerei uko egitera.

- Gaur egungo lan-kulturak eta enpresa-kulturak enpresari denbora osoa eskaintzea eta bizitzak dakarren beste edozein alorren aurrean erabateko lehentasuna ematea eskatzen dute. Ordainsaria eta lanbide-sustapena erabateko arduraldi horrekin daude lotuta, eta emakume batzuek ez dute baldintza hori betetzen.

- Joera hori indarra hartzen ari da emakumeen artean, eta gero eta gizon gehiago ari zaio atxikitzen; horren arabera, esparru pertsonalaz eta pribatuaz gozatzeko denborarekin lotzen da aberastasuna, eta ez ordainsari handiagoa izatearekin. Horrela bada, uko egiten zaie lansari eta ardura handiagoei.

Beraz, soldata-arrakalaren zergatiak askotarikoak eta konplexuak dira, eta hura murrizteko edo deuseztatzeko hainbat ikuspegi heldu behar zaie, eta honako hauetan ekin behar da:

- Zuzeneko diskriminazioa.
- Lanbideak balioesteko irizpideak.
- Merkatutako desparekotasunak eta genero-estereotipoak; bereziki, lana eta familia uztartzearekin eta erantzukidetasunarekin lotuta.
- Usteetatik eta diskriminazio-faktoreetatik sortutako enpresa-kultura.



- ➡ EAEn, 2018an, **urtean pertsonako izandako irabazia** 31.970€-koa izan zen gizonen kasuan, eta 24.757€-koa emakumeenean, hau da, % 22,6ko soldata-arraila (7.213€) egon zen.
- ➡ EAEn soldata-arraila **1,7 puntu murriztu da 2015etik**
- ➡ Soldata-arraila **HANDIAGOA DA...**
 - ... **zerbitzuen sektorean**
 - ... **kualifikazio txikieneko lanbideetan**
 - ... **kontratazio mugagabeetan**
- ➡ Soldata-arrailak bereziki eragiten die...
 - ... **35 eta 54 urte artekoei**
 - ... **Espainiatik kanpo jaioetakoei**

SOLDATA-ARRAKALAREN ANALISIA



Aipatutako Soldata Egituraren Inkestaren (SEI) analisitik lortutako soldata-arrakalaren datuak hauek dira:



SOLDATA-ARRAKALA URTEKO ETA ORDUKO

Euskal Autonomia Erkidegoko langile baten urteko batez besteko irabazia 28.470 euro izan zen 2018an; espainiar estatuko batez besteko soldatarik altuena da.

Sexuka, batez besteko urteko irabazia 31.970 euro izan zen gizonentzat eta 24.757 euro emakumeentzat. Beraz, EAEn % **22,6ko soldata-arrakala dago (7.213 €)**.



SOLDATA-ARRAKALA

EAEn %22,6ko soldata-arrakala dago

7.213€

Garrantzitsua da nabarmentzea arrakala murriztu egin dela 2015. urtearen aldean, orduan % 24,3koa baitzen.

Orduko irabazitakoari dagokionez, nabarmendu behar da soldata-arrakala % 17,58koa zela 2009an, % 12,83koa 2015ean eta % 9,55koa 2018an. Arrakala zehatzago aztertu behar da beharakada horren zergatia zein den jakiteko.

Adierazgarria da orduko irabaziari dagokion kopurua urteko batez besteko irabaziarena baino 13,05 puntu txikiagoa izatea. Izan ere, soldata-arrakala orduka kalkulatuta, hobeto kontrola daiteke lanordu kopuruak nola eragiten duen ordainsariaren gainean.



SOLDATA-ARRAKALA JARDUERA EKONOMIKOAREN SEKTOREAREN ARABERA

Jarduera-sektorearen arabera, EAEn, EINEk datuak bildu eta hiru multzotan sailkatzen ditu sektore guztiak: industria, eraikuntza eta zerbitzuak. Zergatia datuen adierazgarritasunarekin lotuta dago.

Izan ere, ez dira datu adierazgarriak lortzen sailkapenak banakatzean, sexuaren aldagaia gehitzean eta, are gutxiago, autonomia-erkidegoen arabera neurtzean, jarduera-sektoreak multzokatzen ez badira. Horrek azal lezake, adibidez, zergatik eraikuntzako sektorean ez dagoen emakumeen daturik.

Soldata-arrakala identifikatu eta neurtzeko analisia egiteko, desagregazio-maila horretan ezkutatuta geratzen dira diferentziak; izan ere, industriaren multzoaren barruan sektore batzuk oso feminizatuta daude eta beste batzuk oso maskulinizatuta, eta horrek zuzenean eragiten du soldata-arrakalan. Gauza bera gertatzen da zerbitzuen sektorean. Hori gorabehera, Soldata Egituraren Inkestak datu hauek ematen ditu:

1. taula. Urteko batez besteko irabazia (€), jarduera-sektoreko, eta soldata-arrakala (%)


	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Industria	33.404	28.656	34.625	17,2	19,3	16,9
Eraikuntza	27.187	..	26.981	(-)	5	(-)
Zerbitzuak	27.010	24.285	31.039	21,8	23	23,8
GUZTIRA	28.656	24.757	31.970	22,6	24,3	22,1

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Oharrak: Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra nabarmen alda daitekeela.

(-) Ez dago daturik.

Taulan erakusten denez, soldata-arrakala handiena zerbitzuen sektorean dago, eta, ondoren, industriaren sektorean; eraikuntzaren sektoreari dagokionez ez dago 2018. urteko daturik, 2009an gertatu bezala.



Nolanahi ere, zerbitzuen sektorean eta industriarenean askotariko jarduerak biltzen dira, genero-harremanen ikuspegitik oso ezberdinak diren lan-merkatuak dituztenak.

Hortaz, badirudi oso errealitate ezberdinak ezkutatzen direla jarduera-bloke handitan biltzen diren taldeetan.

Hala, industriaren barruan honako hauek daude: erauzte-industriak; manufaktura-industria; energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura; uraren hornidura; eta saneamendu, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazio-jarduerak.


Zerbitzuetan, honako hauek: handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza; informazioa eta komunikazioak; finantza- eta aseguru-jarduerak; higiezinekin lotutako jarduerak; jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak; administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko gizarte-segurantzak; hezkuntza; osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak; arte-, jolas- eta aisia-jarduerak; beste zerbitzu batzuk.

Ordukako aztertzen direnean, informazioa aldatu egiten da: soldata-arrakala handiena industriaren sektorean dago (% 15,75), eta gero, zerbitzuen sektorean.

Ikus daiteke, halaber, industriaren eta zerbitzuen sektoreetan ordukako soldata-

arrakalak beheranzko joera duela 2009. urtetik, baita guztirako orduko soldata-arrakalak ere.

SOLDATA-ARRAKALA, LAN ORDUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA



2. taula. Batez besteko irabazia (€), lanorduko eta jarduera-sektoreko, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Industria	15,21	13,53	15,63	13,4	15,75	18,12
Eraikuntza	12,71	..	12,58	-	-8,3	-
Zerbitzuak	14,14	13,54	14,91	9,2	11,68	18,78
GUZTIRA	14,33	13,54	14,97	9,55	12,83	17,58

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Oharrak: Datua ez dago eskuragarri lagin modura egindako behaketen kopurua 100 baino txikiagoa bada. Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra nabarmen alda daitekeela.

(-) Ez dago daturik



SOLDATA-ARRAKALA OKUPAZIOAREN ARABERA

Okupazioa da soldata-mailan gehien eragiten duten aldagaietako bat. Horren haritik, EINEk urteko batez besteko irabazia eta ordukako batez besteko irabazia multzokatuta aurkezten ditu ez dagoelako lagin modura egindako behaketarik gelaxka askotan, okupazio-talde handiak erabiltzen badira. Honela gehitu dira:

- **Handia:** 1., 2. eta 3. talde handiak ditu (Zuzendaritza eta Kudeatzailletza; teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak, eta teknikariak: laguntzaileak).
- **Ertaina:** 4., 5., 6., 7. eta 0. talde handiak ditu (Kontabilitateko, administrazioko langileak eta bulegoko beste enplegu batzuk; jatetxeetako zerbitzuetako, zerbitzu pertsonaletako, babes-zerbitzuetako langileak eta saltzaileak; nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-sektoreetako langile kualifikatuak; artisauak eta manufaktura-industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak –instalazioetako eta makinetako operadoreak izan ezik–; okupazio militarrik).
- **Baxua:** 8. eta 9. talde handiak ditu (Instalazioetako eta makinetako operadoreak, eta muntatzaileak; oinarritzko lanbideak).

Jarduera-sektorearen arabera multzokatzearekin gertatu bezala, lanbideak hiru mailatan bakarrik sailkatuta daudenez, arrakalaren balioan bakoitzak dituen aldeak ez dira oso esanguratsuak, eta hainbat joera ezkututzen dira. Joera horiek argiago ikusten dira hurrengo taulan, lanbide-talde nagusien arabera erakusten baita soldata-arrakala.


3. taula. Urteko batez besteko irabazia (€), okupazioko, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Handia	(-)42.994	(-)38.077	(-)47.226	19,4	18,6	19,2
Ertaina	24.257	20.838	27.596	24,5	29,1	31
Baxua	23.743	19.609	26.318	25,5	41,6	40,1
GUZTIRA	28.471	(-)24.757	31.970	22,6	24,3	22,1

Iturria. Guk geuk egin, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Oharrak: Datua ez dago eskuragarri lagin modura egindako behaketen kopurua 100 baino txikiagoa bada.


Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra ez dela oso fidagarria eta kontu handiz interpretatu behar dela.



Aurrekoa kontuan hartuz, esan daiteke soldata-arrakala murrizteko nolabaiteko joera dagoela «ertaina» eta, batez ere, «baxua» gisa izendatutako okupazioetan, behera egin baitu 2015ean, % 41,6 izatetik 2018an % 25,5 izatera igaroz.

Hala ere, «okupazio altua» epigrafeko urteko soldata-arrakala egonkor mantendu da % 19 inguruan. Horren haritik, aintzat hartu behar da okupazio altuei buruzko datuek oso behaketa kopuru txikia dutela (100 eta 500 artean) eta, hortaz, datua ez da oso fidagarria.

Ordukako datuen analisian emaitzak ez dira oso desberdinak. Soldata-arrakalarik txikiena duen okupazioa «altua» epigrafe barruan multzokatutakoa da.



Garrantzitsua da aipatzea soldata-arrakalak ere, urtekoak zein ordukoak, dirudienez beheranzko joera duela okupazio ertain eta baxuan; okupazio «altua» deituetan, berriz, badirudi nolabaiteko gorakada dagoela. Hala ere, gogorarazi behar dugu epigrafe horretan behaketa kopurua oso txikia izan dela eta, horrenbestez, emaitzak zuhurtziaz hartu behar direla.

4. taula. Batez besteko irabazia (€), lanorduko eta okupazioko, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Handia	(-)20,38	(-)18,51	(-)21,86	15,4	7,88	17,42
Ertaina	12,13	10,91	13,04	16,4	20,14	26,33
Baxua	11,89	(-)10,40	12,42	16,2	23,95	30,68
GUZTIRA	14,33	13,54	14,97	9,6	12,83	17,58

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).


Oharrak: Datua ez dago eskuragarri lagin modura egindako behaketen kopurua 100 baino txikiagoa bada.

Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra ez dela oso fidagarria eta kontu handiz interpretatu behar dela.



SOLDATA-ARRAKALA KONTRATU MOTAREN ARABERA

Kontratu motaren arabera, 2018an kontratu mugagabeak erakusten du soldata-arrakalaren ehunekorik handiena (% 24,4 eta % 6). Taulan ikusten denez, txikitu egin da 2015etik, % 26,2koa izan baitzen orduan.



Oro har, 2015ean urteko soldata-arrakalak handitu egin zirela ikusi zen, eta, ondoren, txikiagotu; hala, 2018ko datuak 2009an genuen egoeratik gertuago daude.


Nolanahi ere, kontratu mugagabea duten pertsonen EAEko batezbestekotik gorako soldata-arrakala dute.

5. taula. Urteko batez besteko irabazia (€), kontratu motaren arabera, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Mugagabea	30.612	26.140	34.598	24,4	26,2	25,1
Aldi baterakoa	21.218	20.604	21.916	6,0	8,8	5,8
GUZTIRA	28.471	24.757	31.970	22,6	24,3	22,1

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Lanordu bakoitzaren arabera analisi egiten denean, arrakala handiena duen kontratu motaren joera urteko batez besteko irabaziaren arabera ikusten denaren berdina da. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, orduko soldata-arrakala, kontratu mota kontuan hartuta, murriztu egin da 2009tik 2018ra arte, % 17,5etik % 9,6ra.



6. taula. Batez besteko irabazia (€), lanorduko eta kontratu motaren arabera, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Mugagabea	14,74	13,66	15,59	12,4	15,15	19,87
Aldi baterakoa	12,64	13,12	12,16	(-)7,9	(-)4,7	5,05
GUZTIRA	14,33	13,54	14,97	9,6	12,83	17,58

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Oharrak: Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra ez dela oso fidagarria eta kontu handiz interpretatu behar dela.



SOLDATA-ARRAKALA ADIN-TARTEAREN ARABERA

EAEEn adin-tarteko urteko batez besteko irabaziaz, 2018an, 35 urtetik 44rako tartean ditu diferentzia handienak sexuen artean, eta, ondoren, 45 urtetik 54 urterako tartean; 2015ean, ordea, arrakala handieneko lehen bi tarte horien ordena alderantzizkoa zen.

Adin-tarte horiek bat datoz langileen batez besteko kotizazio-aldiarekin. Eta, emakumeen kasuan, bat datoz ugaltzeko adinarekin (35-44 urte) eta familia inguruan mendeko beste pertsona batzuk zaintzen hasten diren adinarekin. Une horretan erantzukizun partekatua edo erantzukidetasuna inoiz baino beharrezkoagoa da emakumeek lan-merkatuan parte hartzean ondorio negatiboak saihesteko, esaterako, partzialtasuna, lan-merkatua uztea, lan-utzialdi ordaindu gabeak eta abar.

7. taula. Urteko batez besteko irabazia (€), adinaren arabera, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
25 urte baino gutxiago	(-)14.264,80	(-)12.531,71	(-)15.723,16	20,3		11,6
25-34 urte	22.163,12	19.924,54	24.678,99	19,3	19,4	18
35-44 urte	28.256,17	24.042,03	32.269,51	25,5	24,8	22,9
45-54 urte	31.217,08	26.782,12	35.058,63	23,6	26,6	21,7
55 urte eta gehiago	31.692,85	28.714,39	34.466,88	16,7	21,3	23,3
GUZTIRA	28.470,94	24.757,18	31.970,30	22,6	24,3	22,1

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Oharrak: Datua ez dago eskuragarri lagin modura egindako behaketen kopurua 100 baino txikiagoa bada.

Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra ez dela oso fidagarria eta kontu handiz interpretatu behar dela.


Bestalde, soldata-arrakala zertxobait txikiagotu da lehen aldiz lan-munduan sartzen diren adin-tarteetan. Beharbada, emakume gazteak lan-merkatuan kalifikazio handiagoz eta lanbide askotarikoetan sartzen direlako. Nolanahi ere, datua arreta handiz interpretatu behar da, lehenengo adin-tarte horretan lagin gisako behaketen kopurua mugatua izan delako.

Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzea 35 eta 54 urte arteko adin-tarteetan urteko soldata-arrakala batezbestekoa baino handiagoa dela.



SOLDATA-ARRAKALA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Urteko soldata-arrakalaren datuak nazionalitatearen arabera aztertzean ikusi da handiagoa dela atzerrian jaiotako pertsonen artean; aldea 9 puntukoa izatera ere iristen da.



Atzerriko pertsonen arteko soldata-arrakala handitu egin da 2018an, 2009an txikitu ondoren; % 32koa da, EAeko batezbestekoa baino 9,4 puntu handiagoa.

8. taula. Urteko batez besteko irabazia (€), nazionalitatearen arabera, eta soldata-arrakala (%)


	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Espainia	28.961	25.141	32.689	23,1	24,5	22,1
Munduko gainerako herrialdeak	(-)20.369	(-)15.546	(-)22.858	32,0	27,7	29,9
GUZTIRA	28.471	24.757	31.970	22,6	24,3	22,1

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Oharrak: Laukian, datuaren aurrean «-» zeinua ageri denean, esan nahi du lagin modura egindako behaketak 100 eta 500 bitartean izan zirela, eta, beraz, zifra ez dela oso fidagarria eta kontu handiz interpretatu behar dela.

SOLDATA-ARRAKALA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

Oro har, espainiar estatuan, % 21,4koa izan da soldata-arrakala 2018an, hau da, denbora-tarte berean, EAEn baino % 1,2 txikiagoa. Arrakala-datu horrek puntu eta erdi egin du behera 2015eko datuarekin erkatuz gero.



Autonomia-erkidegoen arabera, 2018an arrakalarik handienak Asturiasen (% 29,3), Andaluzian (% 24,7) eta Aragoi (% 24,6) izan dira. Bestalde, soldata-arrakalarik txikienak izan dituzten erkidegoak Balear Uharteak (% 13,7), Kanariak (% 14,7) eta Extremadura (% 17,5) izan dira. Hiru horiek, Madril (% 19,8), Gaztela-Mantxa (% 20,3) eta Galiziarekin batera (% 21,3), estatuko batezbestekoaren azpitik daude.


Bestalde, urteko soldata-arrakala handien artean zazpigarren postuan dago EAE (17 autonomia-erkidegoetatik); postu bat igo da 2015. urtearekin alderatuta.

9. taula. Urteko batez besteko irabazia (€), autonomia-erkidegoaren arabera, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak 2018	Gizonak 2018	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Andaluzia	21.756,78	18.599,48	24.693,24	24,7	24,2	19,8
Aragoi	23.531,83	20.074,25	26.640,59	24,6	25,8	23,9
Asturiasko Printzerria	23.914,61	19.744,94	27.912,91	29,3	28,6	23,4
Balear Uharteak	22.800,87	21.085,74	24.437,58	13,7	16,6	19,7
Kanariak	20.763,48	19.051,01	22.333,63	14,7	14,3	12,8
Kantabria	22.554,83	19.630,01	25.349,01	22,6	28,9	20,6
Gaztela eta Leon	22.034,53	19.056,53	24.714,04	22,9	23,3	21,1
Gaztela-Mantxa	21.756,38	19.088,87	23.960,10	20,3	20,5	19,4
Katalunia	25.552,84	22.289,90	28.640,23	22,2	23,9	23,9
Valentziako Erkidegoa	22.121,05	19.235,72	24.537,07	21,6	25,5	24,1
Extremadura	19.947,80	17.972,63	21.794,57	17,5	20,7	13,2
Galizia	22.244,59	19.543,17	24.826,91	21,3	22,0	20,6
Madrilgo Erkidegoa	27.010,93	23.925,99	29.816,34	19,8	19,9	24,8
Murtziako Eskualdea	21.510,59	18.598,64	23.670,24	21,4	26,2	23,2
Nafarroako Foru Komunitatea	26.364,75	22.697,59	29.546,12	23,2	28,4	27,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	28.470,94	24.757,18	31.970,30	22,6	24,3	22,1
Errioxa	22.641,17	19.770,93	25.593,27	22,7	23,5	19,5
GUZTIRA	24.009,12	21.011,89	26.738,19	21,4	22,9	22,0

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).

Ordukako batez besteko soldata-arrakalaren datuak aztertuz gero, ikusiko dugu emaitzak desberdinak direla urteko datuari dagokionez. Kasu horretan, arrakalarik handienak dituzten erkidegoak Asturias, Kantabria eta Errioxa dira.



Bestalde, soldata-arrakalarik txikiak dituzten erkidegoetan (Extremadura, Kanariak eta Balear Uharteak) datuak bat datoz urteko datuekin.

Bestalde, 17 autonomia-erkidegoetatik, EAE hamaikagarren dago; postu bat igo da 2015. urtearekin alderatuta.

Erkidegoen arteko aldakortasun horretan, besteak beste, alderdi hauek eragiten dute: desberdintasunak populazio aktiboaren parte hartzearen indizeetan, desberdintasunak emakumeen edo gizonen presentziak menderatu ohi dituzten jardura eta lanbideen artean, desberdintasunak emakumeek edo gizonen lanaldi partzialean diharduten mailan, baita erakunde publiko eta pribatuak langileen sailen jarrera ere, ibilbide profesionala garatzeari eta aitasun edo amatasun baimenei edo utzaldiei dagokienez.

10. taula. Batez besteko irabazia (€), lanorduko eta autonomia-erkidegoko, eta soldata-arrakala (%)

	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	SA 2018	SA 2015	SA 2009
Andaluzia	11,3	10,6	11,86	10,62	13,75	11,13
Aragoi	11,88	10,96	12,61	13,08	16,2	16,8
Asturiasko Printzerria	11,81	10,51	12,92	18,65	20,82	18,72
Balear Uharteak	11,63	11,32	11,89	4,79	8,88	14,96
Kanariak	10,23	9,94	10,48	5,15	8,76	7,33
Kantabria	11,19	10,34	11,92	13,26	20,6	14,94
Gaztela eta Leon	11,05	10,33	11,62	11,10	13,98	14,44
Gaztela-Mantxa	11,01	10,63	11,28	5,76	7,32	11,45
Katalunia	12,63	11,74	13,4	12,39	15,27	19,1
Valentziako Erkidegoa	11,13	10,44	11,64	10,31	14,81	18,5
Extremadura	10,31	10,33	10,3	-0,29	9,64	4,53
Galizia	10,97	10,28	11,56	11,07	14,23	13,38
Madrilgo Erkidegoa	12,96	12,14	13,64	11,00	13,54	19,23
Murtziako Eskualdea	10,76	10,34	11,02	6,17	15,61	15,16
Nafarroako Foru Komunitatea	13,03	12,3	13,59	9,49	18,01	21,53
Euskal Autonomia Erkidegoa	14,33	13,54	14,97	9,55	12,83	17,58
Errioxa	11,34	10,52	12,11	13,13	11,54	11,3
GUZTIRA	11,95	11,24	12,53	10,30	13,97	15,67

Iturria. Guk geuk egina, 2018ko Soldata Egituraren Inkestako datuetan oinarrituta (2020/09/29an argitaratutako datuak).




**SOLDATA-ARRAKALA
EUROPAR
BATASUNEAN**

Grafiko honetan, ordukako soldata-arrakalaren datuak ageri dira EB osatzen duten herrialdeetan, 2018an. Ikusten denez, Europar Batasunean, emakumeen soldata gizonena baino % 14,8 txikiagoa izan da, batez beste. Eurogunean, berriz, % 15,9koa izan zen diferentzia hori.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakalarik handienak Estonian (% 22,7), Alemanian (% 20,9) eta Txekiar Errepublikan (% 20,1) antzeman dira. Emakumeen eta gizonen batez besteko soldaten arteko alderik txikienak Italian (% 5,0, 2017ko datuak), Luxenburgon (% 4,6) eta Errumanian (% 3,0) erregistratu dira.

Espainiar estatua hamaikagarren postuan dago, Europar Batasunaren batezbestekoaren azpitik. Hemen orduko batez besteko irabazia 2018an 21,8 eurokoa izan zen, EBren batezbestekoa baino ia sei euro gutxiago (27,7 €).



Oharra: Herrialde guztietarako, Txekiar Errepublika eta Islandiarako salbu: 10 pertsona edo gehiago enplegatzen dituzten enpresetarako datuak NACE Rev. 2 B a S (-O);

Txekiar Errepublika: pertsona bat edo gehiago enplegatzen dituzten enpresetarako datuak; Islandia: NACE Rev.2 sekzioak: C a H, J, K, P, Q.

(1) Behin-behineko datuak.

(2) 2017ko datuak.

(3) Eurostatek kalkulatuak.


(4) Definizioa desberdina da.

Iturria: Eurostat (linea datuen kodea: eam_gr_gpgr2)

Soldata-arrakala orduko EB-27an, 2018 (%)

GUZTIRA, %14,4

-  GUZTIZKO ehunekoaren AZPITIK dauden EB-27ko herrialdeak
-  GUZTIZKO ehunekoaren GAINETIK dauden EB-27ko herrialdeak





ONDORIOAK

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko langile baten urteko batez besteko irabazia 28.470 euro izan zen 2018an, estatuko soldatarik altuena. Sexuka, batez besteko urteko irabazia 31.970 euro izan zen gizonentzat eta 24.757 euro emakumeentzat. Beraz, EAEn % 22,6ko (7.213€) soldata-arrakala dago eta horrek esan nahi du 1,7 puntu jaitsi dela 2015etik.
- ✓ Orduko batez besteko irabizari dagokionez, EAEko soldata-arrakala % 9,55koa da, hau da, 2015ean erregistratutako % 12,83a baino txikiagoa.
- ✓ Jarduera-sektorearen arabera, soldata-arrakalarik handiena zerbitzuen sektorean dago (% 21,8), eta ondoren industrian (% 17,2). Eraikuntzaren sektorearen kasuan ezin izan da aski datu lortu.
- ✓ Okupazioka, soldata-arrakala handiagoa da «okupazio baxua» epigrafean bildutako okupazioen artean: % 25,5, EAEko batezbestekotik gora. Oro har, kualifikazio txikiagoko okupazioetan arrakalak gora egiteko joera du. Okupazio «ertaina» zein «baxua» epigrafeetan, beheranzko joera ikusten da generoaren soldata-arrakalaren datuan.
- ✓ Kontratu motaren arabera, ikusi da (2015ean eta 2009an bezala) soldata-arrakala handiagoa dela kontratu mugagabeen, aldi baterako kontratuak dituzten pertsonen artean baino: % 24,4 eta aldi baterako kontratuen kasuan, berriz, % 6. Antzintasunagatik eta iraunkortasunari lotutako beste mota bateko osagarriengatik azal daiteke datua.
- ✓ Adinaren araberako analisitik ondorioztatzen da EAEn generoaren soldata-arrakalaren daturik altuena 35 eta 54 urte arteko tarteetan dagoela; joera hori 2015ean ere antzeman zen. Emakumeen kasuan, adin-tarte horiek bat datoz ugaltzeko adinarekin eta familia-inguruan mendeko beste pertsona batzuk zaintzen hasten diren adinarekin.
- ✓ Nazionalitatearen arabera, Espainian jaiotako pertsonen soldata-arrakala (% 23,1), betiere urteko batez besteko irabazia kontuan harturik, beste herrialde batzuetan jaiotakoena baino 8,9 puntu txikiagoa izan zen (% 32), EAEko batezbestekoa baino ia hamar puntu gorago kokatuz. Bien arteko arrakala handitu egin da 2015. urtekoarekin erkatuta, atzerrian jaiotako pertsonen artean handitu egin baita, eta, aldi berean, bertan jaiotako pertsonen artean behera egin du.
- ✓ Autonomia-erkidegoen arabera, 2018an arrakalarik handienak Asturiasen, Andaluzian eta Aragoian izan dira. Bestalde, soldata-arrakalarik txikienak Balear Uharteetan, Kanarietan eta Extremaduran izan dira. EAE soldata-arrakalarik handiena duen zazpigarren erkidegoa da.
- ✓ Europar Batasunean, emakumeen ordutako soldata gizonena baino % 14,8 txikiagoa izan da, batez beste. Estatu mailan, berriz, % 10,3koa izan da.